


Lan eta bizi duina bermatzea herritar orori. Horixe izan behar luke herri baten eredu ekonomiko eta sozialaren helburu nagusia, baina, IBEX 35-ak eliteen mesedetan agintzen du beti eta kapitalak prekarietatea zabaltzen jarraitzen du gure lanean eta gure bizitzan.

Bi estatu antidemokratiko ditugu aurrean. Espainia eta Frantzia inboluzio sozial eta politikoa sustatzen ari dira, euskal herritarron gehiengoaren kaltetan. Hamarkadetan lortu ditugun garaipen sozialak kolokan jartzen ari dira: lan eta bizi baldintzak prekarizatzen ari dira; zerbitzu publikoak murrizten; zaintza lanek emakumeen bizkar jarraitzen dute; pentsio sistema publikoa eraitsi nahi dute; sindikalgintza eta bestelako defensa kolektiborako tresnak indargabetzeko eginahaletan ari dira.

Erasoaldi bortitza da, baina zorionez, inboluzioari aurre egiteko adorea daukagu euskal herritarrek. Pentsiodunen mobilizazio jendetsuak edota martxoaren 8ko greba feminista arrakastatsuak erakutsi dute injustiziei aurre egiteko herri honek duen indarra. Etorkizun justuagoa, demokratikoagoa izateko gogo bizia dago Euskal Herrian.

Aldarrikapen laboral eta sozial komunen inguruan indarrak biltzeko garaia da. Lan esparruari dagokionez honako lehentasunak ikusten ditugu, besteak beste:

> 1.200 euroko gutxieneko soldata.
> 35 orduko lanastea; lanaldi partzial inposaturik ez.
> 1080 euroko gutxieneko pentsioa.
> Gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala ezabatu. Zaintza lanak aitortu eta duindu.
> Enplegu publikoa sortu eta publifikazio prozesuak sustatu. Azpikontratetan klausula sozialak ezarri.
> Prekarizazio eta dualizazio formula oro baztertu: soldata-eskala bikoitzak, externalizazioak, pribatizazioak, ustezko autonomoak, iruzurrezko praktikak etab.
> Lanetik etxera bizirik eta osasuntsu bueltatzeko eskubidea. Lan istripuak ekiditeko neurriak. Lan gaixotasunen aitortza eta prebentzioa.
> Euskaraz lan egin eta bizitzeko eskubidea.

Lan, bizi eta herri duina ditugu helburu:

**Lan duina.** Prekarietatearen kontra, enpleguaren defentsan, eta lan eskubideen alde borroka eta greba eredugarri ugari daude piztuak Euskal Herri osoko lantoki ezberdinetan; lantokiz lantoki aipatutako aldarrikapenen alde borrokan segitzeko prest gara. Alde batetik, patronalak negoziazio kolektiboan ezarritako jokalekuari aurre egitera goaz ekintza sindikal berrituarekin, lan baldintza duinen defentsan, gure hitzarmenen alde; lantokietan jasaten ditugun egoera injustu eta prekarioei buelta emateko langile borroka indartzea beharrezkoa da. Zehaztu ditzagun lehentasunak eta borrokak, antolatu ditzagun grebak eta bestelako ekimenak.

**Bizi duina.** Euren erantzukizuna eta ardura delako eta horretarako gaitasuna dutelako, Euskal Herriko instituzioei exijitzen diegu gaurdanik herritarrok lan eta bizi baldintza duina izateko erabakiak hartzeko: pentsioak 1.080 eurora bitarte osagarritzea edota Karta Sozialak sustatutako Herri Ekimen Legegileak aldarrikatzen duen bezala, herritar guztiei oinarrizko errenta eta etxebizitza bermatzea; langileen mesedetan erreforma fiskal sakona egitea; neurri zehatzak dira, kasuan kasu euskal gobernuek zein aldundiek har ditzaketenak. Herritarren gehiengoaren alde kokatzeko eta jokatzeko, baina, patronalaren neurriko politikak egiteari utzi behar zaio eta langileekin lerrokatu.

**Herri duina**. Herritarrekin ala patronalarekin egon, 155arekin ala eskubide demokratikoekin egon hautu politikoa da eta aukeratu beharra dago. EAJ, gaur gaurkoz, Confebaskekin eta 155aren sustatzaileekin dago. Elite ekonomiko baten interesak lehenetsi eta herritarrei lan eta bizi baldintza duinak bermatzen ez dien eredua antidemokratikoa da. Madrildik, PP-PSOE-Csen tripartidismo berritua zentralizazioaren aldeko erabakiak hartzen ari da, Euskal Herrian, autogobernua jo-puntuan duten erabakiekin, bertoko hainbat lege indargabetuz. Katalunian egin bezala, subirautza prozesua abiatu asmo duen ororentzat prest dute 155a. Sustatzen dutenen neurrira egindakoa da, eta gurean, lan munduan ere aplikatu digute 155a, bertoko hitzarmenak babesten dituen Akordio Interprofesionalaren inpugnazioarekin.

Erabakitzeko eskubidea eta burujabetza ez dira aldarrikapen abstraktuak, bizimodu duina izango badugu, behar-beharrezkoak ditugu. Estatus politikoen eztabaida irekita dagoen honetan, guk erabaki nahi dugu, Euskal Herrian erabaki, subirautza prozesuan ezkerretik eraginez, herritar, langile orori lan eta bizi duina bermatzeko. Aldaketa sozialerako burujabetza aldarrikatzen dugu. Fase autonomistatik fase soberanistara pasatzeko unea da. Lan Harremanetarako eta Babes Sozialera Euskal Esparrua eraikitzeko, ezkerretik eta feminismotik eredu sozial eta ekonomiko berria sustatzeko, **lan, bizi eta herri duina helburu, Maiatzaren Lehenean, kalera!**

MAIATZAK 1

LAB




Garantizar un trabajo digno y una vida digna a toda la ciudadanía. Éste debería ser el principal objetivo del modelo económico y social de un pueblo, pero el IBEX-35 siempre gobierna en favor de una élite, al tiempo que el capital impulsa más y más precariedad en nuestro trabajo, en nuestra vida.

Estamos ante dos estados antidemocráticos. España y Francia están detrás de la actual involución social y política, en perjuicio de la mayoría de la ciudadanía vasca. Logros sociales alcanzados en décadas se encuentran en peligro: precarizan las condiciones de trabajo y de vida; recortan servicios públicos; la labor de cuidados sigue en manos de las mujeres; quieren acabar con el sistema público de pensiones; hacen todo lo posible para neutralizar el sindicalismo y las demás herramientas de defensa colectiva.

Estamos ante una durísima agresión, pero, afortunadamente, las y los ciudadanos vascos tenemos valentía para hacer frente a esa involución. Las multitudinarias movilizaciones de las y los pensionistas y la exitosa huelga feminista del 8 de marzo demuestran la fortaleza de este pueblo a la hora de enfrentarse a las injusticias. En Euskal Herria, existe un verdadero deseo de lograr un futuro más justo y más democrático.

Es hora de unir fuerzas en torno a reivindicaciones laborales y sociales comunes. En lo que respecta al ámbito laboral, éstas son las reivindicaciones prioritarias:

> Salario mínimo de 1.200 euros.
>Jornada semanal de 35 horas; no a la jornada parcial impuesta.
>Pensión mínima de 1.080 euros.
>Erradicar la brecha salarial entre hombres y mujeres. Reconocer y dignificar las labores de cuidados.
>Crear empleo público y promover procesos de publificación. Añadir cláusulas sociales en las subcontratas.
>Rechazar cualquier fórmula de precarización y dualización: dobles escalas salariales, externalizaciones, privatizaciones, autónomos y autónomas falsas, prácticas fraudulentas, etc.
>Derecho a regresar a casa del trabajo vivos y vivas y con salud. Medidas para evitar accidentes laborales. Reconocimiento y prevención de las enfermedades laborales.
>Derecho a trabajar y vivir en euskara.

Nuestro objetivo son un trabajo, una vida y un pueblo dignos:
**Trabajo digno.** En Euskal Herria, existen muchas luchas y huelgas ejemplares en contra de la precariedad, en defensa del empleo y en favor de los derechos laborales; estamos dispuestas a seguir defendiendo esas reivindicaciones en todos los centros de trabajo. Por un lado, contamos con una acción sindical renovada para hacer frente a las reglas de juego establecidas por la patronal en lo que se refiere a la negociación colectiva. Lucharemos en defensa de condiciones laborales dignas, en defensa de nuestros convenios; es necesario revitalizar la lucha de la clase trabajadora para hacer frente a las situaciones injustas y precarias que padecemos en los centros de trabajo. Establezcamos prioridades, concretemos luchas, organicemos huelgas y otras iniciativas.

**Vida digna**. Por ser su responsabilidad y por tener capacidad para ello, exigimos a las instituciones de Euskal Herria que tomen decisiones para que las y los ciudadanos tengan condiciones de trabajo y de vida dignas: complementar las pensiones hasta los 1.080 euros o, tal y como reivindica la Iniciativa Legislativa Popular (ILP) promovida por la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria, garantizar ingresos mínimos y el derecho a una vivienda a toda la ciudadanía; realizar una profunda reforma fiscal en beneficio de las y los trabajadores. Se trata de medidas concretas que están en manos de las instituciones vascas. Para posicionarse del lado de la mayoría ciudadana y actuar en su beneficio, sin embargo, se deben dejar de lado las políticas diseñadas a la medida de la patronal.

**Pueblo digno**. Del lado de la ciudadanía o del lado de la patronal, con los derechos democráticos o con el 155. Se trata de una decisión política y hay que posicionarse. Hoy por hoy, el PNV está con Confebask y los del 155. El modelo que prioriza los intereses de una élite económica y que no garantiza condiciones de trabajo y de vida dignas a la ciudadanía es un modelo a todas luces antidemocrático. Desde Madrid, el nuevo tripartidismo PP-PSOE-Cs está tomando decisiones en favor de la centralización, en lo que respecta a Euskal Herria, con decisiones que tienen el autogobierno en el punto de mira, dejando sin vigencia diferentes leyes. Al igual que en Catalunya, tienen preparado el 155 para todo aquel que pretenda iniciar un proceso soberanista. Es un artículo hecho a la medida de quienes lo promueven y, en nuestro caso, el 155 está en marcha en el ámbito laboral con la impugnación del Acuerdo Interprofesional que protege los convenios de aquí.

El derecho a decidir y la soberanía no son reivindicaciones abstractas, son reivindicaciones imprescindibles para que podamos tener una vida digna. El debate sobre los estatus políticos está abierto, y nosotras y nosotros queremos decidir, aquí en Euskal Herria, impulsando el proceso soberanista desde la izquierda, con el fin de garantizar un trabajo digno y una vida digna a todas y todos los trabajadores. Reivindicamos la soberanía para lograr el cambio social. Es hora de pasar de la fase autonomista a la fase soberanista. Para construir el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social. Para impulsar un nuevo modelo social y económico desde la izquierda y desde el feminismo. Con el objetivo de lograr un **trabajo, una vida y un pueblo dignos, ¡el Primero de Mayo salgamos todas y todos a la calle!**

MAIATZAK 1

LAB